

### 1.6.3 PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN DESKRIBAPENA

Aurretik aipatutako guztia eta dokumentu honen 1.7.1. puntuan ezarritako irizpideak kontuan hartuta, AU.01.4 Okendo-Alde azpierzemuaren honako antolamendua proposatzen da.


#### 1.6.3.1 Zonakatze xehatua: partzelazio-irizpideak

AU.01.4 Okendo-Alde azpierzemua antolatzeko, Plan Orokorrean jasotako zehaztapenen arabera, beharrezkoa da, gutxienez, bi partzela eraikigarri definitzea haren barruan: 1.919 m<sup>2</sup>-ko ekipamendu-partzela bat eta 1.350 m<sup>2</sup>-ko beste bat zuzkidura-bizitokitarako. Gainera, HAPOK ezartzen du, gutxienez, 5.000 m<sup>2</sup> aurreikusi beharko direla espazio libreetarako eta bertan azpierzemurako erabilera publikoko aparkalekua jarri.

Orubearen topografia eta egungo eraikinen eta zerbitzuen banaketa kontuan hartuta, honako zehaztapen hauek ezarri dira:

- Lehenik eta behin, 8397194 eta 8397198 hiri-partzelak finkatzea adostu da, hurrenez hurren, Okendo etxeari eta Xabier Zubiri Manteo BHI-ri dagozkien partzelak dira.
- Bigarrenik, azpierzemuaren barruan "g.00 Ekipamendu komunitario" motako hiru partzela eraikigarri berri antolatu behar dira, eta azpierzemuaren barruko gainerako azalera, aldiz, "f.10 Hiriko espazio libre" sailkatu.

Azpierzemuaren barruan antolatu beharreko azalera librearen lehen azterketa geometrikoa eginda, argi antzematen da, elkarrengandik nabarmen bereizitako hiru esku-hartze eremu posible daudela. Alde batetik, orubearen hego-mendebaldeko azalera handia dago, Xabier Zubiri Manteo BHI ikastetxeko instalazioen azpian (1). Bestalde, orubearen ipar-mendebaldean erronboide formako espazioa dago, Alejandria kaletik Okendo etxera sartzeko bideak gainerako gunetik isolatuta uzten duena (2). Azkenik, gaur egun Rodil kaleak eta bere ondoko aparkaleku-eremuak okupatzen duten gunean esku-hartzeko beste espazio bat nabarmentzen da, partzelaren hego-ekialdean (3). Eremu hori, besteak ez bezala, dagoeneko urbanizatuta dago. Hala ere, Rodil kalea eta aparkaleku-eremuko kale-zuloa ez dira atseginak ingurunearekin, ez dute azpierzemua hiri-bilbean barneratzea ahalbidetzen, bertan sortzen den arkitektura-oztopoak espazio hori Manteo eremuan isolatuta uzten baitu. Horrela, azpierzemuko irisgarritasuna hobetzea eta Rodil kaletik Manteo eremurako sarbidea atsegin bihurtzea helburu duen berronertzea lortzeko, ondorioztatzen da deskribatutako gunean esku-hartzea egokiena dela.





Inguruaren azterketa sakonagoak eta orubearen profil topografikoak azpieroemuaren hiri-egoerak zehatzago adierazten dituzte. Deskribatutako eremu bakoitzak ezaugarri bereizgarriak ditu, horiek kontuan izanda, bakoitza partzela independente konfiguratzeko iradokitzen dute. Hala, kasu bakoitzean erabilera baterako edo besterako erabiltzea ahalbidetzen dute.

Azpieroemuan presentzia handiena duen eremua (1) da. Lurzoru horren malda goranzkoa da ipar-ekialderantz, eta gailurraren muga Xabier Zubiri Manteo BHI dago. Hori azpieroemuko egungo bi eraikinen artean dago, hain zuzen. Eremu hori erabat irekitzen da Nafarroa hiribidera, ibilgailuen zirkulazio handiko bidera, alegia, horrek Gros auzoko trafiko gehiena zuzentzen du eta Zurriola hondartzan amaitzen da.

Espazio horrekin alderatuta, nabarmen ezberdinak dira (2) eremuaren ezaugarriak. Iparraldean azpieroemua osatzen duen erronboide-espazioak Zemoriya kalearekiko topografia perpendikularra eta malda handiagoa du. Gune hori ipar-mendebaldeko eta ipar-ekialdeko aldeetan BS+4S-ko bizitegi inguratuta dago, eta horietara etxe-arte bidetik iristen da.

Azkenik, (3) eremuak aurretik deskribatutako bi eremuen arteko ezaugarriak ditu. Hori azpieroemuaren hego-ekialdeko muturrean dago, zuzkidura-eraikinez inguratuta. Eraikin horien eraikuntza-profila txikiagoa da azpieroemuaren iparraldeko eraikinekin alderatuta. Lurzorua +25,00 i.m.g.m.-ko kota konstantean dago, Rodil kalera ematen duen ezpondarekin. Gaur egun aparkaleku-eremua dago bertan, eta inguruko eraikinak ez daude eremu horretara begira.

**(1) Espazioak garrantzi handiagoa hartzen du egungo zuzkiduren arteko espazioaren konfigurazailatzat; (2) espazioak, berriz, azpieroemutik kanpoko eraikin mugakideei erantzuten dien esku-hartzea iradokitzen du, nolana ere, Okendo etxearen gain inbaditzaileak izan daitezkeenak ekiditen ditu, azken hori hego-ekialdeko profilean dago. (3) Eremuak berroneratzeko esku-hartzea behar du. Gaur egun ez da hori aprobetxatzen, bizkarra ematen dioten eraikinen arteko espazio interstiziala baita.**

Azkenik, azpieroemuan ezarri beharreko erabilera zehatzen azterketak zonakatzea zehatzen du. Aipatutako eraikigabeko eremu libreek honako azalera dute, hurrenez hurren: 1.900 m<sup>2</sup>, 6.250 m<sup>2</sup> eta 1.900 m<sup>2</sup>.

HAPOk ezartzen duen ekipamendu-azalerarako Xabier Zubiri Manteo BHI institutuaren alboko partzela erabiltzea erabaki da, erabilera mota hori Nafarroa hiribide nagusira bideratzeko dagoen interesa dela-eta. Gainera, eremu hori azpieroemuaren erdian dago, Okendo etxearen eta institutuaren artean. Horrela, zentzuzkoa da ekipamendu-eraikina bertan jartzea, zuzkidura-multzoari balioa emateko, eta ertzetako eremuak, aldiz, multzoa zuzkidura-bizitokiekin osatzeko erabiltzea. Zemoriya eta Rodil kaleak, trafiko edo zirkulazio gutxiago dutenak, egokiagoak dira HAPOn aurreikusitako erabilera mota hori hartzeko.

Proposamen horren egokitasuna baliozkotzeko azken arrazoiak tipologiaren izaera formala da. Bizitegi-eraikinek profil bertikalagoa izaten dute, horregatik, zentzuzkoa da horiek muturretan edo ertzetan jartzea; ekipamendu-eraikinak, berriz, altuera txikiagoko morfologia izango du, eta oinplano zabalagoa. Beraz, zentzuzkoa da azpieroemuaren erdian hura jartzea, hala, eraikinen arteko ikusmena baimentzen da. Gainera, partzelaren desnibel handia dela-eta, ezinezkoa da etxebizitza guztiek argiztapen eta aireztapen egokia izan dezaten eraikina egitea. Hori dela eta, proposagoa da espazio hori beste erabilera batzuetarako erabiltzea.

Ekipamendu-partzelaren azalera 1.919 m<sup>2</sup>-tik 3.836,48m<sup>2</sup>-ra handitzea proposatzen da. Erabaki hori hartu da altuera txikiagoko eta, beraz, oinplano zabalagoko eraikina jartzeko. Izan ere, eremuko multzoari edo osotasunari begira, onuragarria dirudi (1) eremuan egingo den eraikuntzak, ahal den neurrian, egungo topografia naturala errespetatzea eta horretara egokitzea. Beraz, azalera osoan, gutxienez, eraikina ez da partzelaren goi-sestra baino altuagoa izango, gainerako eraikuntzetan ikusmen eragina zeharo murriztuta. Erabaki horrek eragin nabarmena du azpieroemuko espazio librearen azalera. Hori ekiditeko, garatu beharreko eraikinak landare-estalkia izan beharko du, azpieroemu erdiko berdegune handiaren luzapena izan dadin. Horrela, gainera, orubetik balkoi itxurako



topografia naturala eratzten da hirirantz, eta bide batez, espazio libre erabilgarriaren murrizketa zuzendutzat jotzen da.

HAPOn aurreikusitako beste partzela, gutxienez, 1.350 m<sup>2</sup>-ko zuzkidura-bizitokietarako orubea da. Eremuan oraindik zehaztu gabe dauden bi espazio okupagarrietako edozeinek ezarritako azalera hori baino handiagoa du. Hala ere, HAPOk ezartzen du partzela horren eraikigarritasuna 5.400 m<sup>2</sup>-koa izan behar duela eta azalera hori agortzen bada, gehienez 8 solairuko profildun eraikinak okupatuko lukeela. Konfigurazio hori ez da egokitzat jotzen, eraikina ez litzateke azpierzemuán ezarri nahi den parke handian barneratuko, gainerako eraikinen aldean gehiegizko altuera eta presentzia hartuko lukeelako.


Hori dela eta, bi partzela ezartzea erabaki da, aipatutako zuzkidura-bizitokirako eraikigarritasuna agortzeko, hau da, bi eraikin egingo dira eta horiek inguruan barneratzeko eraikuntza-profil egokia izango dute. Hala, eraikigarritasunaren % 35 azpierzemuaren iparraldean garatzeko dagoen partzelan erabiltzea erabaki da, eta gainerako % 65a, berriz, egun Rodil kalea eta aparkalekua dauden azaleran. Erabaki horrek, era berean, Uria menditik berdegunearen iragazkortasuna edo horren jarraitasuna bermatzea ahalbidetzen du, espazio librearen aurreko partzelan eraikin handiak egitea sahistuta. Bereziki mugatzen da azpierzemuaren iparraldeko partzelaren eraikigarritasuna, esku-hartzearen eskala Okendo etxearen parekoa izan dadin. Azken horrek azpierzemuaren duen garrantzia mantendu nahi da, hura desitxuratu edo itzaldu ez dezan eraikin handi oro agertzea ekidinda. Bestalde, Okendo etxearen eskalara egokitzeko eta berdegunearen iragazkortasuna bultzatzeko hartutako beste neurria okupazioa mugatzea da, modu murriztailean ezarriko dena. Horrela, 1.124,63m<sup>2</sup>-ko eta 1.895,35m<sup>2</sup>-ko bi partzela eratzea proposatzen da. Okupazioaren mugaketari dagokionez, batez ere, beheko solairuan, askatasun handiagoa ematen die etorkizuneko proiektuen idazketa-taldeei, partzelaren espazio komuna eragotzi gabe.

Deskribatutako partzelen konfigurazioari esker, berdegune handia egongo da azpierzemuaren bihotzean, eraikin guztiak lotzeko zeharkako bi ardatz egituratzea ahalbidetuko duena. Parke handi hori Uria mendiaren luzapeña izango da partzelaren barruan. Bestalde, azalera liberik gehiena parke handi horretara bideratzeko edo uzteko, baimendu egiten da (1) partzelan eraiki daitezkeen sotoko solairuetako bat aparkaleku publikorako izatea. Horrela, azpierzemuko aparkaleku-beharrizana betetzea lortzen da, eta, aldi berean, erabilera publikoko espazio librea maximizatzea.






**Horrela, azpierzemua 5 partzelatan banatzea proposatzen da: alde batetik, egungo bi partzelak finkatzen dira; bestetik, Nafarroa hiribidearen aurrean ekipamendu-partzela berria sortzea proposatzen da eta, azkenik, azpierzemua osatzeko bere ertzetan zuzkidura-bizitokietarako beste bi partzela planteatzen dira. Horiek guztiak "g.00 Ekipamendu komunitario" sailkatzen dira. Bestalde, partzela berrien azalera zehazteko kontuan hartuko da, azpierzemuaren barruko gainerako espazioak nahikoa direla HAPOk ezarritako espazio libreetarako 5.000 m<sup>2</sup>-ak mugatzeko eta betetzeko. Espazio horiek, "f.10 Hiriko espazio libre" sailkatuko dira. Azkenik, aparkaleku publiko handia egitea onartuko da 1. partzelan eraikiko den sotoko solairuetako batean, azpierzemuaren aparkaleku-beharrizana betetzeko.**



KATASTROKO ERREFERENTZIA	HELBIDEA	AZALERA (m <sup>2</sup> )	ERABILERA	ERAIKINA	
8397194	Nafarroa Hiribidea 7	1.892	g.00 Ekipamendu komunitario	Okendo Etxea	EX
8397198	Alejandria kalea 2	1.468	g.00 Ekipamendu komunitario	Xabier Zubiri Manteo BHI	EX
-	-	3.836,48	g.00.01 - Ekipamendu komunitario	-	N
-	-	1.124,63	g.00.2A - Zuzkidura-bizitokia (Sistema orokorra)	-	N
-	-	1.889,58	g.00.2B - Zuzkidura-bizitokia (Sistema orokorra)	-	N
-	-	5.229,33	f.10 Hiriko espazio librea	-	-



## LEYENDA

-  Límite de subámbito urbanístico
-  Límite de parcelas
-  Parcelas existentes consolidadas
-  Espacio libre urbano
-  Nuevas parcelas de equipamiento comunitario

AU.01.4 - Okendo-Alde Azpierzemua.

Proposatutako antolamendua



### 1.6.3.2 Zonakatze xehatua: azpieroemuko bideak eta azpiegiturak antolatzeako irizpideak

#### BIDEAK ETA HIRIKO ESPAZIO LIBREAK

Azpieroemuko espazio libreei eta bideei dagokienez, esku-hartze irizpideak ezarri dira, eraikinetarako irisgarritasuna hobetzeko eta eremuan kalitatezko espazio publikoa edukitzeko.

Alde horretatik, proposamenaren antolamenduan ondorengo lehentasuneko helburu hauek ezarri dira:

- Nafarroako hiribidetik Rodil kalera arte oinezkoen irisgarritasuna hobetzea, hirigunea lasaitzeko eta atsegin bihurtzeko, eta Alejandria zein Zemoriya kaleetan jarduteko egokitasuna baloratzea.
- Ibilbide irisgarri berria sortzea, Nafarroa hiribidetik azpieroemuko zuzkidura-multzora sarbidea izateko. Aurreikusi behar da partzelaren beheko eta goiko mailak nola lotu elementu egokien bidez (igogailuak, arrapalak, etab.)
- Azpieroemu osorako espazio librea (f.10 - Hiriko espazio libre partzela), gutxienez, 5.000 m<sup>2</sup>-koa izatea (HAPO), azpieroemuko eraikinak lotzeko eta zirkulazio-ardatz berriak sortzeko.
- Azpieroemutik igarotzen den Donejakue Bideari balioa ematea.


Aipatutako parametro horiek beteta, honako esku-hartze hauek proposatzen dira, partzeletako lerrokaduren geometria-definizioan eragina dutenak:

#### Egungo bideen irisgarritasuna hobetzea

AU.01.4 Okendo-Alde azpieroemuan ondorengo bideak daude: Rodil kalea, Alejandria kalea eta Zemoriya kalearen tarte bat.

Alejandria eta Zemoriya kaleek 7 m inguruko galtzada eta norabide bakarrekotako trafikoa dute. Biek dituzte aparkaleku-plazak galtzadaren bi aldeetan eta horien luzera osoan zehar. Zemoriya kalean paraleloan jarrita daude eta Alejandria kalean, aldiz, tartearan arabera, paraleloan eta baterian. Bestalde, kaleen bi aldeetan 3 m-ko zabaleradun oinezkoentzako espaloia dago.

Alejandria kalea hiri-inguruneetarako irisgarritasun-zehaztapenetara egokitzen den arren, Zemoriya kaleak trazadura konplexuagoa du ibilgailuen trafikoa behar bezala egiteko. Bertan bihurtune handia dago, horregatik, hori egokitzeko, barnealdeko biraketa-erradioa zabaldu eta puntu horretako aparkaleku-plazak kendu egingo dira. Horrela, bai Alejandria kaleak, bai Zemoriya kaleak hiri-inguruneetarako irisgarritasun-zehaztapenak beteko dituzte.




Hala ere, oinezkoen joan-etorria errazteko, horietan jarduteko erabakia azpieroemuko espazio librea antolatzeako garatu beharreko urbanizazio-proiektuari dagokio.

Bestalde, etorkizuneko urbanizazio-proiektuan Rodil kaleko irisgarritasuna hobetzeko zenbait jarduketa jaso behar dira.




Gaur egun, AU.01.4 Okendo-Alde azpierzemuaren mugako zenbaki bikoitietako eraikinetara sartzeko, Rodil kaleak ez du oinezkoentzako espaloirik. Egoera horrek bereziki, Rodil kaleko 6. zenbakiko eraikinari eragiten dio, oinezkoentzako sarrera galtzadan baitago, eta higiezinaren ataria arriskutsua da.

Rodil kalearen alboko aparkalekuan partzela berria ezartzeko esku-hartzea aurreikusita dagoenez, espazio hori berroneratzeko aukera aprobeztatzea proposatzen da. Horrela, egungo bidearen trazadura aldatzea planteatzen da, galtzadaren beste aldean berdegune txikia sortzeko eta trafiko norabidearen bi aldeetan 2,00 m-ko zabaleradun espaloia egiteko. Eragiketa horrek proposamenaren zenbait helburu betetzen ditu. Alde batetik, azpierzemuko espazio librearen jarraipena bermatzen da Manteoko gainerako eremurantz, hirigunea berroneratuta eta gune hori atsegin bihurtuta. Gainera, galtzadaren bi aldeetan espaloia jarraia izateak Rodil kalearen irisgarritasuna hobetzen du, bereziki, kaleko zenbaki bikoitiko eraikinen.



Rodil kalearen egungo trazadura




Rodil kalerako proposatutako trazadura



Sarbide berriak Nafarroa hiribidetik

Azpierenuaren aurrean, Nafarroa hiribidera begira, eskailera batzuk daude, espaloi horren sestra Okendo etxearen estalkiarekin eta multzoaren goialdearekin lotzen dutenak. Hala ere, eskailera horiek 2,00 m-ko zabalera dute eta espazio interstizialean daude. Hala, azpierenuari Nafarroa hiribidetik sarbide nagusia egiteko asmoz, (1) eremuan Okendo etxearen partzelako mugatik 25 m-ko atzeraemangunea egitea proposatzen da. Hala, 25 m-ko zabalradun espazio horrek Sekundino Esnaola kalearen jarraipena egiteko aukera ematen du, kalearen proportzio bereko sarbidea sortuta. Hori Gros auzoko hiri-bilbearen barnean garrantzi handieneko hiribidea da; beraz, haren luzapena interes handikoa da hiriaren eta Manteo eremuaren arteko lotura bermatzeko.

Beste alde batetik, proposamenaren garapen-eremua Ulija mendiaren magalean dago, horregatik, malda zein kota aldaketa handiko topografia da. Azpierenuaren eta hirigurune orokorraren irisgarritasuna hobetzeko, proiektatu beharreko sarbideak ibilbide irisgarriak izango ditu, Nafarroa hiribidearen eta Manteoko goialdearen arteko desnibela gainditzeko.



AU.01.4 Azpierenua- Etorkizuneko loturak Nafarroa hiribidetik

← Oinezkoentzako (Ibilbide irisgarria)



f.10 – Hiriko espazio libreak

Donostiako Plan Orokorren egiturazko zehaztapenen artean, 5.000 m<sup>2</sup>-ko azalera aurreikusten da espazio libreetarako, eta horietatik 2.400 m<sup>2</sup>, gutxienez, sarbide zuzena izan beharko dute Nafarroa hiribidetik.

Plan Berezi honek Nafarroa hiribidetik sarbidea egitea proposatzen duela aprobetxatuta, eremu erdian espazio libre handia sortzea planteatzen da, egungo partzelen eta proposatutakoen artean. Horrela, azpierzemuko espazio komuna sortzen da, eraikinak elkartzen eta bi lotura-ardatz berri ezartzen dituen: bata, zeharkakoa, Nafarroa hiribidea eta Alejandria kalea lotzen dituen, bien arteko desnibela gaindituta; eta bestea, berriz, luzetarakoa, Rodil kalea Okendo etxearen estalkiarekin lotzen duena. Bi ardatzen arteko elkargunean eremu libre eratzten da, azpierzemua norabide askotan igarotzea ahalbidetzen duena eta partzela guztiak lotzen dituen.

Bestalde, espazio libre handi hori partzelaren erdian jartzeak orubeak daukan hiriko "balkoi berdearen" ezaugarri naturala mantentzeko aukera ematen du. Parkearen kokapena estrategikoa eta pribilegiatua da hiri-bilbearen barruan, institutuaren eta garatzeke dagoen ekipamenduaren artean baitago, partzelaren kotarik altueneko eremuan, alegia. Gainera, bertatik Zurriola hondartzaren eta Gros auzoaren gaineko ikuspegi zabala dago.

Aurretik deskribatutako espazio libreak eguzkitze- eta dimentsio-ezaugarri aproposak izan ditzan, beharrezkoa izango da sestrak, lerroakadurak eta atzeraemanguneak ezartzea, espazio horren bertuteak indartzeko. Horretarako, dokumentu honetako 1.7.3.4. puntuan azaltzen dira proposatutako partzelazioaren geometria-definizioaren eta lerroakaduren irizpideak.

Azkenik, espazio libre horren sarbideak, guneak eta ibilbideak indarreko araudian ezarritako irisgarritasun-zehaztapenen arabera izango dira.


Donejakue Bidea

AU.01.4 Okendo-Alde azpierzemuko espazio librea antolatzeke orduan, kontuan hartu beharreko beste irizpideetako bat ondorengoa da: Donejakue Bidea azpierzemuko iparraldeko muturretik igarotzen dela. Horregatik, egin beharreko esku-hartzeak kultura-ondasun hori errespetatu eta sustatu beharko du.

Horretan oinarrituta, bidearen egungo tartearen inguruan egin beharreko proposamenak urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuan ezarritakoa bete beharko du. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue Bidearen zatia Monumentu Multzo kategoriako Kultur Ondasun sailkatuta dago.

Bestalde, egungo bidearen trazadura eta zortasuna errespetatzeaz gain, ordezko bidea garatzeko aukera ere planteatzen da, Okendo etxearen aurrealdetik igaroko dena eta Nafarroa hiribidearekin lotuko duena, azken horretan aurreikusitako sarbide berriaren bidez. Esku-hartze horren helburua da azpierzemuan Okendo etxeari balioa ematea, bereziki, Donejakue Bidearen zati delako, hau da, eraikina monumentu-multzoaren barnean jasota dago. Era berean, ibilbide horrek sarbide berriaren erabilera eta garapena sustatuko du.





AU.01.4 Azpierenmua – Donejakue Bidearen Afektazioak

- ← Donejakue Bidearen egungo trazadura
- Trazadura gehigarri berriaren proposamena



**AZPIEGITURAK**


Azpierzemuko azpiegiturei dagokienez, esku-hartzearen eremua Ulla mendiaren magalean dago, Donostiako Gros auzoan, beraz, behar bezala funtzionatzeko beharrezkoak diren urbanizazio-zerbitzu eta -azpiegitura guztiak ditu.

Telekomunikazio-sarearen kasu zehatzean, Donostiako Udalak urteak daramatza telekomunikazio-sareen diseinua sustatzen, lurralde-eremuen egungo eta etorkizuneko beharrianak bermatu ahal izateko. Beraz, kontuan hartu behar dira, ez bakarrik eremuan gaur egun ezarrita dauden operadore-sareak, baizik eta etorkizunean interesa izan ditzaketenak ere.

Telekomunikazio Orokorrei buruzko maiatzaren 9ko 9/2014 Legearen 34.2 artikulua ezartzen du komunikazio-elektronikoen sare publikoak oinarritzko ekipamendua direla eta horiek hirigintza-plangintzako tresnetan aurreikustea egiturazko zehaztapen izaera dutela.

Horrela, ezarritakoaren arabera, lurpeko sareen erèdua hartu behar da kontuan, telekomunikazioen prisma bakarreko erèduz osatua, 125 mm-ko 6 TPC hodiz (barraz) eta H motako pasoko edo noranzko-aldaketako kutxatila partekatuez osatua, alegia.

Sare-konexioko elementuak jar daitezkeen deribazio-puntuetarako, kutxatila egingo da operadore bakoitzarentzat, eta hortik 63 mm-dun diametroko 2 hodi aterako dira, eraikineko partzela bakoitzeko TKA kutxatilaraino.



PRISMA TIPO